



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 8a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan 2009an, Ugalkortasun Unitateko obrak esleitze aldera. Osasun Batzordeak bazter utzia (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofía Ospitaleko Plan Zuzendarian. Osasun Batzordeak bazter utzia (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2009ko apirilaren 24ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru lege honen xedea da pertsonen bermatzea ezen eskubidea izanen dutela, baldin eta jaio zireneko sexuaz bestea hartzen badute gizartearen aurrean, jasotzeko Foru Administrazioetik arreta integrala eta beren beharrezko mediko, psikologiko, juridiko eta bestelakoetara egokitua, gainerako herritarrek jasotzen duten moduan, Nafarroari dagokion eskumenen esparruan.

Zioak: Testua hobetzea, legearen helburuak betetzeko.

1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. .artikulua, foru legearen xedeari buruzkoa, eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legearen xedea zehaztu gabeko subjektu bat da. Sexuaren aldaketaren ondoriozko zuzenketa martxoaren 15eko 3/2007 Legean araututa dago. "Jaio zireneko sexuaz bestea hartzea" adierazpidea ez da arrazoi nahikoa, lege horren arabera.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

"1. artikulua. Xedea.

2. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua –Foru Administrazioaren tratamendua– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legearen xedea zehaztu gabeko subjektu bat da. Sexuaren aldaketaren ondoriozko zuzenketa martxoaren 15eko 3/2007 Legean araututa dago. "Sexu-nortasuna" eta "nork bere egindako sexua" nahastea ez da nahikoa arrazoi, lege horren arabera. Bestalde, Foru Komunitateko Administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legeak Estatuko oinarriko legedian eta Europako legedian aitorturiko eskubideak bermatzen ditu (5. artikulua), eta debekatu egiten du sexuarengatik bereizkeria (6. artikulua).

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. .artikuluia –Onuradunak– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenek –2009ko apirilaren 1ekoa bata eta apirilaren 29koa bestea (2. eta 3. idatz-zatiak)–, bai eta Nafarroako Kontseiluaren txostenak ere –2009ko ekainaren 8koa (2. idatz-zatia)–, jotzen dute artikulu hori Konstituzioarekin bateraezina dela. Transexualitateari dagokion konstituzio-kontrakotasun horrek konstituzio-kontrakotasunez kutsatzen ditu Konstituzioaren kontra definitutako kontzeptu horretan oinarrituriko legearen arau guztiak.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hurrengo testuko 3.2 artikulua aldatzeko zuzenketa: “pertsona transexualak dira...” hitzetatik hasi eta artikulua bukaeraraino kentzea proposatzen da, 3. idatz-zati osoa barne dela.

Zioak: Txosten juridikoen arabera, Estatuko eskumena inbaditzen da bestela, eta konstituzion-altasuneko arazoak topa ditzakegu.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua –Nafarroako osasun sistema publikoaren bidezko laguntza– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ulertzen da transexualei osasun sistemaren bidez laguntza ematea gauza orokorra dela, Nafarroako Foru Komunitatearen esparru geografikoaz harantzago doana. Berdintasunaren konstituzio-printzipioak –Osasunari buruzko lege orokorrean ere jasota dago– eta bazterkeriarik ezarenak (Espainiako Konstituzioko 14. artikulua)

gomendatzen dute gai hauek modu orokorrean tratatzea Estatuko legeetan. Aurrekoari jarraituz, proposatutakoa gaizki ezkontzen da egokitasunaren, arrazoizkotasunaren eta proportzionaltasunaren irizpideekin, baldin eta transexualentzako laguntza foru erkidegoaren esparru geografikora mugatzen bada.

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

Nafarroako osasun sistema publikoak eginen ditu foru lege honetan eta foru legea garatzen duten arauetan ezarritako diagnosiak eta tratamenduak, osasun publikoaren arloko prestazioen esparruan.”

Zioak: Artikuluak hobeki egokitzea osasun prestazioei, doakoak izan nahiz koordainketaren sistemaren arabekoak izan.

8. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“2. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5. artikuluan jasotako eskubideen titularrak dira pertsona transexualak. Bereziki, ondoko eskubideak dituzte ospitale eta erietxe publiko zein pribatuetan:

Beren genero-nortasunari dagokion tratua jasotzera eta hari dagokion geletan edo zentroetan ingresatua izatera, sexuaren arabera areto desberdinak daudenean, eta beren genero-nortasunari dagokion tratua jasotzera.

Bai tratamenduari dagokion espezialitate zehatzean, bai, oro har, transexualitatearen arloan esperientzia duten profesionalen arreta jasotzera.

Beharrezkoak diren administrazioaren arloko eta bestelako neurriak har daitezten, pertsona transexualaren ugalketa-eskubideak ziurtatze aldera, bazterketarik gabe sexu-orientabidea edo genero-nortasuna dela eta.”

Zioak: Ulertzen da profesionalaren esperientzia lege osoko artikuluen testuaren bidez bermatuta dagoela.

9. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4. Erregelamendu bidez arautuko da Nafarroako Osasun Zerbitzuan erreferentzia izan den transexualitateari buruzko unitate bat, abiapuntu gisa hartuta Andraize bezalako sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko laguntza-zentroen esperientzia. Unitate hori osatuko dute zehazten diren osasun laguntzako eta arreta psikologiko, psikoterapeutiko eta sexologikorako zerbitzuko langileek, eta xede izan den zehaztea, dagokion Estatuko erreferentziako unitatearekin lankidetzan, pertsona transexualak jarraitu beharreko prozesua, kontuan hartuta bere egoera pertsonala, osasun egoera eta berezko sentitzen duen sexura egokitzeko ezaugarri morfologikoa aldatzeko nahia.”

Zioak: Helburua da lege honetan jasotakoa legearekin bete nahi diren eskakizunetako batzuk tratatzen dituzten zentroekin koordinatuta eta haiekin lankidetzan gauzatzea.

**5. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua –Adingabe transexualen arreta– eta haren testua kentzekok zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenek –2009ko apirilaren 1ekoa bata eta apirilaren 29koa bestea–, bai eta Nafarroako Kontseiluaren txostenak ere –2009ko ekainaren 8koa–, jotzen dute artikulua hori Konstituzioarekin bateraezina dela.

11. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa: “Gura-soek edo tutoreek ez badute...” hitzetatik hasi eta lerrokadaren bukaerara arte, hau da, “..ahalko du beharrezkoa dena egin dezan” hitzetara arte.

Zioak: Emandako aholkuari jarraituz, lerrokada hori bere horretan mantentzeak konstituzio kontraktasunaren arazoa dauka.

12. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“5. artikulua. Adingabe transexualen arreta.

Pertsona transexual adingabeek erabateko eskubidea dute diagnosi egokia eta beren transexualitateari buruzko tratamendu medikoa jasotzeko, bereziki hormonon bidezko terapia. Ematen den osasun laguntza, adingabeei ematen baldin bazaie, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeak ezartzen dituen baldintzetan emanen da; izan ere, foru lege horren bidez gaixoaren zenbait eskubide ezartzen dira, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzea. Halaber, azaroaren 14ko 41/2002 Legeko 8.3.c) artikulua bete beharko da –oinarrizko lege horrek arautzen ditu gaixoaren autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren alorreko eskubide eta betebeharrak–. Hartara, adingabe emantzipatuaren edo hamasei urtez gorakoaren idatzizko baimen informatua jasoko da, eta hamabi urtetik gorakoa baldin bada haren iritzia beti hartuko da kontuan, baimena haren legezko ordezkariak sinatuta dagoenean.”

Zioak: Testu argiagoa ematea, adingabeen eskubideei dagokienez.

**6. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

13. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua –Gida kliniko– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ulertzen da transexualei osasun sistemaren bidez laguntza ematea gauza orokorra dela, Nafarroako Foru Komunitatearen esparru geografikoaz harantzago doana. Berdintasunaren konstituzio-printzipioak –Osasunari buruzko lege orokorrean ere jasota dago– eta bazterkeriarik ezaren gomendatzen dute gai hauek modu orokorrean tratzea Estatuko legeetan. Bestalde, 4. artikulua

kentzeko zuzenketan adierazitako irizpideekin bat etorritik, artikulua edukirik gabe geratzen da.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.2 c) artikuluan hurrengo testua kentzeko zuzenketa: “profesionalen eta eskatzaileen...” hitzetatik hasi eta bukaerara arte.

Zioak: Prozedurak “profesionalen eta eskatzaileen arteko adostasunarekin” gauzatzearen irizpidea nahiko irekia da; horrenbestez, egokiagoa dirudi informazio egokirako eta prozesuari buruzko kontsultarako eskubidea bermatzea.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.4.c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“4. Laguntza endokrinologikoari dagokionez, laguntza hori emanen da transexualitatearen arloan esperientzia duen psikologo kliniko edo sendagile espezializatu batek emandako gomendio-txostenaren ondoren, eta arlo horretan esperientzia duen endokrino batek emanen du.

Zioak: Arlo psikologikoari buruzko txostenak sendagile edo psikologo kliniko batek baizik ezin dituzte egin, Estatuko Generoko Identitateari buruzko Legeak zehazten duen bezala. Laguntza endokrinologikoari dagokionez, endokrinologoek berek eman behar dute; ez da nahikoa endokrinologoek hura gainbegiratzea.

16. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“6. artikulua. Gida klinikoak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko da pertsona transexualei laguntzeko gida kliniko bat, zeinaren xedea izanen baita profesionalen arteko adostasun nahikoa lortzea esparru psikologiko, mediko, eta kirurgikoan, kontuan hartzea nazioartean arlo horretan aplikatzen diren irizpide objektibo eta

estandarrak, eta zehaztea profesionalak zer kualifikazio beharko duten jarduera bakoitzerako eta zein izanen diren bideratze-zirkuitu egokienak.

2. Hala ere, aipatu gida klinikoak ondoko ildoak jaso beharko ditu gutxienez:

Pertsona transexualei aitortuko zaie eskubidea dutela beren beharrezko eta berariazko helburuetarako egokienak diren tratamenduak jasotzeko, bai eta bere garapen pertsonala erraztuko duen osasun arloko arreta integrala jasotzeko ere.

Pertsona transexualek bermatuta izanen dute eragiten dieten tratamenduen formulazioan parte hartzeko eskubidea, betiere pertsona transexualaren autonomia aitortzetik abiatuta, sexu-orientazio-agatiko edo genero-nortasunagatiko bereizketarik gabe eta errespetu osoz.

Bermatuko da hormonon bidezko terapiak, bularretako edo gorputz-enborreko kirurgia plastikoa –histerektomiak eta abar–, edota sexua berresleitzeko ebakuntzak –esate baterako, baginoplastia, klitoriko ebakuntza, metaidoioplastia edo faloplastia– behar den unean eginen direla, profesionalen eta eskatzaileen arteko adostasunarekin.

3. Laguntza psikologikoari eta psikoterapeutikoari dagokionez, aplikatzeko izanen den gida klinikoak xede gisa ezarri beharko duena da pertsona transexualak lortzea bere eginiko generoaren rolan bizitzeko beharrezkoa den abilezia, tratamendu somatikoak eskaintzen dizkion aukeren eta mugen balorazio errealista eginda, bai eta gizarte- eta familia-egokitzapen prozesua erraztea eta balizko gizarte-bazterkeria egoerei aurre egiteko baliabideak ematea ere.

4. Laguntza endokrinologikoari dagokionez, laguntza hori emanen da psikologo edo psikiatra espezializatu batek emandako gomendio-txostenaren ondoren, eta tratamendu hormonalen arloan kualifikazioa duen profesional batek (endokrinologoa, ginekologoa eta abar) ikuskatuta.

5. Laguntza kirurgikoari dagokionez, laguntza hori emanen zaie pertsona adindunei, betiere transexualitatearen arloan esperientzia duen psikologo edo psikiatra espezializatu batek eta kasuan kasuko pertsonaren hormona bidezko terapia ikuskatzen duen profesionalak horretarako emaniko gomendio-txostenaren ondoren.

6. Sexua berresleitzeko ebakuntzak alde zuzenetik egin izana ezin izanen da jarri baldintza gisa aurpegiko ilearen fotodepilazioa, tirokondroplastia edo ahotsaren tonua eta modulazioa hobetzeko tratamendua bezalako tratamendu osagarriak jasotzeko.”

Zioak: Zehaztasun handiagoa bai prestazioei dagokienez, bai haien ardura duten profesionali dagokienez.

17. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.2.c) artikulua bukaeran ondoko testua gehitzeko zuzenketa: “Nolanahi ere, bermatu eginen da transexualek prozesuari buruzko informazioa jasotzeko eta prozesuari berari buruz kontsultatuak izateko eskubidea”.

Zioak: Prozedurak “profesionalen eta eskatzailleen arteko adostasunarekin” gauzatzearen irizpidea nahiko irekia da; horrenbestez, egokiagoa dirudi informazio egokirako eta prozesuari buruzko kontsultarako eskubidea bermatzea.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua –Estatistikak eta datuen tratamendua– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ulertzen da transexualei osasun sistemen bidez laguntza ematea gauza orokorra dela, Nafarroako Foru Komunitatearen esparru geografikoaz harantzago doana. Berdintasunaren konstituzio-printzipioak –Osasunari buruzko lege orokorrean ere jasota dago– eta bazterkeriarik ezarenak gomendatzen dute gai hauek modu orokorrean tratatzea Estatuko legeetan. Bestalde, 4. artikulua kentzeko zuzenketan adierazitako irizpideekin bat etorri, artikulua edukirik gabe geratzen da.

19. ZUZENKETA

NAFARROA BAI **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7,1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

Pertsona transexualen osasun arloko laguntza-jarraipenean sartuko da, baita ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak estatistikak sortzea egiten diren tratamendu, terapia eta eba-

kuntza desberdinen emaitzei buruz. Estatistika horietan zehaztuko dira erabilitako teknikak, izandako arazoak eta erreklamazioak, bai eta laguntza kalitatearen balorazioa ere.

2. Estatistiketarako datu horiek biltzean, isilpekotasun, gardentasun, espezialitate eta proportzionaltasunaren printzipioei jarraituko zaie. Estatistiken isilpekotasuna dela eta, Nafarroako administrazio publikoek ezin izanen dituzte inolaz ere zabaldu pertsona transexualei buruzko datu pertsonalak, edozein dela ere haien jatorria.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aurreikusitako estatistikak egiteko, fitxategi automatizatu bat sortuko da. Nafarroako Osasun Zerbitzua izanen da fitxategi horren titularra, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa aplikatuko du.”

Zioak: Estatistikak direla eta, zuzenketa tekniko egitea, “publikoak” izatearen kontzeptua kenduz.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua –Profesionalen prestakuntza– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ulertzen da transexualei osasun sistemen bidez laguntza ematea gauza orokorra dela, Nafarroako Foru Komunitatearen esparru geografikoaz harantzago doana. Berdintasunaren konstituzio-printzipioak –Osasunari buruzko Lege Orokorrean ere jasota dago– eta bazterkeriarik ezarenak gomendatzen dute gai hauek modu orokorrean tratatzea Estatuko legeetan. Bestalde, 4. artikulua kentzeko zuzenketan adierazitako irizpideekin bat etorri, artikulua edukirik gabe geratzen da.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikulua –Lanean ez baztertzea– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Espainiako Konstituzioko 14. artikulua, Foru Administrazioaren legedi orokorrak (15/2004 Foru Legeko 6.1 artikulua) eta aplikatzekoa den lan arloko legediak sexu-orientazioarengatiko bereizkeria eragozten dute. Artikulua sobran eta testuingurutik kanpo dago.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua –Diskriminazio positiboko neurriak lan arloan– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenek –2009ko apirilaren 1ekoa bata eta apirilaren 29koa bestea– jotzen dute artikulua hori Konstituzioarekin bateraezina dela. Bestalde, legearen aurreko berdintasunaren konstituzio-printzipioak eta bereizkeriarik ezarenak gomendatzen dute gai hauek modu orokorrean tratatzea Estatu-ko legeetan.

23. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“10. artikulua. Diskriminazio positiboko neurriak lan arloan.

Nafarroako administrazio publikoek diskriminazio positiboko neurri egokiak prestatuko dituzte, jada badauden enplegagarritasun eta laneratze baliabideak erabilita, pertsona transexualen kontratazioa eta enplegua sustatzeko. Neurri horien xedea izanen da pertsona transexualak bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalean txertatu eta parte hartzeko aukerak hobetzea, gizartearen aktiboki esku hartzeko ahalmena handituz eta gizartearen baitako desberdintasunak gainditzen lagunduz.”

Zioak: Zuzenketaren beharra begi bistakoa da.

24. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa: “Administrazio publikoek” hitzen aurrean, “Nafarroako” jarriko da.

Zioak: Arrazoizkoa dirudi zehaztea erregulazioa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioei dagokiela, interpretazio okerrak saihesteko.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

25. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua –Transexualitatearen trataera oinarrizko hezkuntzan– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira:

Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenek –2009ko apirilaren 1ekoa bata eta apirilaren 29koa bestea– jotzen dute artikulua hori Konstituzioarekin bateraezina dela. Bestalde, Nafarroako Kontseilua testuaren interpretazio zehatz bat aurkitu beharrean dago, eta ondorioztatzen du interpretazio horrekin ez duela konstituzio-contraktasunerako arrazoirik. Hala eta guztiz ere, lege-arauen bokazio estentsiboa ikusita, ez dugu behar beste arrazoirik ikusten.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

26. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13.a) artikuluan, “sexu-orientazioari” hitzak kentzea.

Zioak: Berriz diogu ez dugula ulertzen sexu-orientazioaren kontzeptua sartzeko transexualitateari buruzko foru lege batean.

27. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. b) artikuluko testua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“13. b) Neurri egoki guztiak hartuko dituzte, hezkuntza eta gaikuntza programak barne direla, generoko nortasunean oinarrituriko edozein bazterkeria deuseztatu ahal izateko.”

Zioak: “Edozein genero-nortasun edo genero-adierazpen besteak baino gutxiago edo gehiago izatearen gaitzespena ere” adierazpidea Yogyakartako printzipioetan ezarritako kontzeptu bat izanda ere, ez da gure legedian erabili; horrenbestez, nahastea edo interpretazio okerrak eragin ditzake, eta argiago gera daiteke proposatzen dugun moduan adierazita.

28. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluari beste letra bat gehitzea, c) letra hain zuzen, honako testuarekin:

“13. c) Gizartean bazterturik egoteko arriskuan dauden transexualen laneratze planen garapenari ekitea.”

Zioak: Garrantzitsua da arlo horretan neurri aktiboak ezartzea.

**14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****29. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikulua –Pertsona transexualei buruzko jarduerak– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenek –2009ko apirilaren 1ekoa bata eta apirilaren 29koa bestea–, bai eta Nafarroako Kontseiluaren txostenak ere –2009ko ekainaren 8koa (14.2 atala)–, jotzen dute artikulua hori Konstituzioarekin bateraezina dela. Bestalde, Foru Komunitateko Administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legeak Estatuko oinarritzko legedian eta Europako legedian aitorturiko eskubideak bermatzen ditu (5.

artikulua), eta debekatu egiten du sexuarengatiko bereizkeria (6. artikulua).

30. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14.1.a) artikuluan ondoko testu zatia kentzeko zuzenketa: “sexu-orientabidea”

Zioak: Sexu-joeraren kontzeptua ez da egokia lege honetarako, eta sexu-joeraren eta sexu-nortasunaren arteko nahasketa eragin dezake.

31. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14.1 artikulua barruan c) eta d) letra osoak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bazterkeria egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden transexualen aldeko ekintza positiboak egin beharko dira; baina, transexualitatea bazterkeria eta gizarte bazterkeriako faktore bat dela ulertuta ere, ez dugu uste automatikoki seinalatu behar denik beti hala gertatuko balitz bezala. Egokiagoa litzateke, izan ere, gizarte bazterkeriako edo bazterketako egoerak egiazki gertatzen direnerako.

32. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

14.2. artikuluko testua ordeztea. Hona proposatutako testua:

“14.2. Erregelamenduzko prozedura bat ezarriko da ahalbidetzeko transexualek aukera izan dezaten aldi baterako dokumentazio administratiboa edukitzeko eskoletan, gizarte zerbitzuetan eta osasun zerbitzuetan, hain zuzen ere hobeki integratu ahal izan daitezen trantsizio prozesuan zehar, beharrik gabeko sufrimendu edo bazterkeria egoerak saihestuta.”

Zioak: Gure legedia, transexualen erregistroaldaketari dagokionez, munduko aurreratuena da eta, horrenbestez, sexuz aldatzeko bi urteko prozesuaren ondoren eta berrezartze genitalerako

esku-hartze kirurgikoaren premiarik gabe, izenaren eta sexuaren aldaketa aitortzen du. Hori dela eta, gure ustezko egokia da aldaketa, nahiz eta adituek horri buruz iradokitzen duten balorazioa proposatzen dugun.

33. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“2. Nafarroako hezkuntza zentroetan dauden ikasle, langile eta irakasle transexualek eskubidea dute haiek aukeratutako genero-nortasuna eta hari dagokion izena ager dadin agiri publikoetan, hala nola ikasleen zerrendak, kalifikazio akademikoak edota hauteskunde sindikaletarako hauteskunde-errolak”.

Zioak: Testua hobetzea.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua –Aholkularitza eta laguntza zerbitzua pertsona transexualentzat eta haien familientzat– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 3.2 artikuluan jasotako “transexuala” terminoaren definizioarekin konstituzio-kontrakotasunez kutsatuta dago.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

35. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

ALDATZEKO ZUZENKETA

16.1 artikuluko testua ordeztea. Hona proposatutako testua:

“16.1. Egokitzen jotzen diren neurri guztiak hartuko dituzte, hezkuntza eta gaikuntza programak barne direla, generoko nortasunean oinarrituriko edozein bazterkeria deuseztatu ahal izateko”.

Zioak: “Edozein genero-nortasun edo genero-adierazpen besteak baino gutxiago edo gehiago izatearen gaitzespena ere” adierazpidea Yogyakartako printzipioetan ezarritako kontzeptu bat izanda ere, ez da gure legedian erabili; horrenbestez, nahastea edo interpretazio okerrak eragin ditzake, eta argiago gera daiteke proposatzen dugun moduan adierazita.

36. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. Beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartuko dituzte, hezkuntza eta trebatze programak barne, hezkuntza sistematik ezabatzeko edozein sexu-orientazio, genero-nortasun edo genero-adierazpen besteak baino gutxiago edo gehiago dela uste izatean oinarritutako aurreiritziak edo bazterketa adierazten duten jarrerak eta praktikak, sexu-heziketaren esparru orokorraren barruan”.

Zioak: Beste zuzenketa batean azpimarratu den bezala, helburua da arlo honetako jarduera oro sexu-heziketaren esparruan egotea.

37. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16.2 artikuluan “sexu-orientazioarekin” hitzak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Berriz diogu ez dugula ulertzen sexu-orientazioaren kontzeptua sartzeari buruzko foru lege batean.

38. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16.3 artikuluan “sexu-orientazioari” hitzak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Berriz diogu ez dugula ulertzen sexu-orientazioaren kontzeptua sartzeari buruzko foru lege batean.

39. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16.3 artikulua –Nafarroako administrazio publikoek hartu beharreko beste neurri batzuk– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen txostenek –2009ko apirilaren 1ekoa bata eta apirilaren 29koa bestea– jotzen dute artikulua hori Konstituzioarekin bateraezina dela.

40. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16.4 artikuluan “sexu-orientazioarekin” hitzak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Berriz diogu ez dugula ulertzen sexu-orientazioaren kontzeptua sartzea transexualitateari buruzko foru lege batean.

41. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“6. Sustatuko dute Nafarroako unibertsitateetako esparru akademiko guztietan jasotzea eta sustatzea sexu-hezkuntzari buruzko eta zehazki transexualitateari buruzko prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa, eta lankidetzak hitzarmenak egiten dituzte ondoko xedeekin:

Ikerketa eta sakontze teorikoari bultzada ematea.

Pertsona transexualen errealitateari buruzko azterlan soziologikoak prestatzea.

Pertsona transexualen prestakuntzarako eta enplegurako planak egiteko orientabidea eta laguntza ematea.

Prestakuntza planak egitea osasun arloko eta transexualitatearekin harremana duten beste eza-gutza-arlo batzuetako langileentzat”

Zioak: Testua hobetzea.

**XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****42. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra –Departamentuarterteko Batzardea eratzea– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dirudi behar beste justifikaturik dagoenik bilatzen diren helburuetarako egitura administratibo berri bat sortzea.

43. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra osorik kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez xedapen hori ez dago justifikaturik, ez dagokien programetarako, ez eta batzorde edo talde berri bat osatzeko ere.

44. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo xedapen iragankorra –Gida kliniko– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 6. artikulua kentzeko zuzenketaren zioekin bat etortzea.

45. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenbiziko xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Sei hilabeteko epean, adituen batzorde bat osatuko da, pertsona transexualei arreta integrala emateko gida kliniko prestatzeko. Aipatu batzardea transexualitatearen arretaren arloko profesional adituen diziplina anitzeko talde batek osatuko du. Psikologiaren, sexologiaren, ginekologiaren, urologiaren, laguntza kirurgikoaren eta gizarte zerbitzuen arloko adituak egonen dira talde horretan, bai eta transexualen elkartetako kideak ere.

Hala ere, gida kliniko horietan arreta berezia jarriko da ziurtatzen pertsona transexualak baimen informatua emanen duela fase bakoitzean tratamenduen aukeren, mugen eta balizko ondorioen, bai eta 3. artikulua 2. idatz-zatiaren arabera dagozkion eskubideen ezagutza osoa eta errealista duela.”

Zioak: Helburua da hobeki definitzea bai presztazioak, bai haietaz arduratuko diren profesionalak.

46. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria –Erreferentziako Unitatea– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 4. artikulua kentzeko zuzenketaren zioekin bat etortzea.

47. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria –Justizia Administrazioako eta espetxeetako langileen prestakuntza– eta haren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 16.3. artikulua kentzeko zuzenketaren zioekin bat etortzea.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

48. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO **DE NAVARRA** PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenean kenketa egiteko zuzenketa. Bigarren lerrokadako ondoko testua kentzea proposatzen da:

“Hori dela eta, garrantzitsua... genero-nortasuna dela eta”

Zioak: Sexu-joeraren kontzeptua ez da egokia lege honetarako, eta sexu-joeraren eta sexu-nortasunaren arteko nahasketa eragin dezake.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan 2009an, Ugal-kortasun Unitateko obrak esleitze aldera.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan 2009an, Ugal-kortasun Unitateko obrak esleitze aldera."

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2009ko irailaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko uztailaren 4ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofía Ospitaleko Plan Zuzendarian.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofía Ospitaleko Plan Zuzendarian.

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2009ko irailaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko irailaren 18ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda